

ETXAURIBARKO OIKONIMIA BILTZEKO EGITASMOA

2022 URTEKO PLANGINTZA

1. Sarrera
2. Helburuak
3. Metodologia
4. Baliabide materialak
5. Lantaldea: egitura eta eginkizunak
6. Urratsak
7. Kronograma

*Etxauribarko udalak
Euskarabidea
Euskaltzaindia*

1. SARRERA

Etxe-izenak, gainerako toponimoak bezala, Nafarroako ondare ez-materialaren altxor preziatuak dira, bildu eta babestu beharrekoak. Horregatik, Nafarroako Foru Berriak (1973-03-01) ere hala jaso zuen: *Etxea ez da pertsona juridikoa, baina izen berezia du, eta eskubide eta betebeharren subjektu da auzotartasun-harremanetan, zerbitzu-egiteetan, herri-aprobetxamenduetan, finken identifikazio eta mugaketetan, eta tokiko ohitura eta usadioek ezarritako bestelako harremanetan ere. Etxeko jaun-andreei dagozkie etxea gobernatzea, horren batasunari eustea, eta etxearen ondarea eta izena iraurarazi eta defendatzea.*

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak ere toponimiaren garrantzia islatu, eta toponimia ofiziala arautu zuen. Hartara, 90eko hamarkadan, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko toponimoak (landa eremuko etxe-izenak barne) ikertzeko eta argitaratzeko lanak kontratatu zituen, eta Nafarroako Toponimiaren Datu-basea eratu zuen. Gaur egun, informazio hori Nafarroako toponimiaren bisore geografikoan dago argitaratua, denon eskura.

Alabaina, Nafarroan oraindik etxe-izen asko dago biltzeko. Azken urteotan herrietako etxe-izenak biltzeko hainbat ekimen egon da Nafarroan. Lan horietan, ordea, ez da batasunik izan irizpideetan, metodologian eta abarretan. Euskarabideak aspaldi izan du metodologia zehazteko premia (2011n oikonimia lanak arautu beharraren berri eman zion Euskaltzaindiari), baina azkenean egitasmoa ez zen gauzatu.

2020an, Txema Oderizek, Etxarri Etxauribarko alkateak, Euskarabidera jo zuen azaltzeko ibarrean etxe-izenak biltzeko asmotan zebiltzala, eta aholkularitza teknikoa eskatu zuen. Urte horretako urriaren 7an, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria eta teknikaria Txema Oderizekin bildu ziren, eta adostu zuten, batetik, proiektu horretan elkarlanean aritzea, eta, bestetik, Euskarabidea metodologia eta bestelakoak zehazteko urratsak ematen hasiko zela.

Asmo hori betetzeko asmotan, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2021erako sinatu zuten hitzarmenean adostu zuten Euskaltzaindiak etxe-izenak (oikonimia) ikertzeko esparru tekniko bat presatu eta Euskarabidearen esku uztea. Hitzarmen horretan, II.1. atalean, eginkizun hau jaso zen: “Oikonimia-lanak egiteko erreferentzia gisa balioko duen esparru tekniko bat prestatzea (metodologia, terminologia, irizpideak, landa lanerako fitxa eredu eta formatua, etab.)”.

Hartara, Euskaltzaindiak egitasmoari ekin zion, eta, 2022ko urtarrilaren 27ko Onomastika Batzordean, *Oikominia: oikonimia-lanak egiteko erreferentzia gisa balioko duen txosten teknikoa* onartu zuen, eta urtarrilaren 31 aurkeztu zion Euskarabideari.

Etxauribarko egitasmoa gauzatzeko, Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak 2022rako sinatu duten hitzarmenean adostu dute..... Eta Onomastika Batzordeak

Paskual Rekalde euskaltzaina izendatu zuen Etxauribarko oikonimia biltzeko egitasmoaren zuzendari.

Beraz, txosten honen asmoa da, Euskaltzaindiaren lanean jasotako metodologia oinarri hartuta, Etxauribarko oikonimia biltzeko plangintza zehaztea.

2. HELBURUAK

Helburu nagusia: Etxauribarko oikonimia biltzea eta gizarteratzea

Helburu xeheak:

- Etxauribarko etxe-izenen aldaera guztiak biltzea, eta forma horiek guztiak Nafarroako toponimiaren datu-basean antolatuak dauden moduan ematea: ahozkoak, historikoak, egun erabiltzen direnak, normalizatuak...
- Izenak arautu eta forma estandarizatuak ematea
- Izen guztiak Nafarroako Toponimia Ofizialaren Datu-basean txertatzea
- Egindako lana gizarteratzea
-

3. BALIABIDE MATERIALAK

- Datuak biltzeko euskarria
- Grabagailua
- Argazki-kamera
- Bideo-kamera digitala
- Mapak
- Orain arte argitaratutako liburuak, dokumentuak eta mapak

4. METODOLOGIA

Oikonimia-lanak egiteko, toponimia-lanak egiteko metodologia¹ erabili behar da, aurretik zertxobait moldatu ondoren. Nolanahi ere, kontuan izatekoa da oikonimoek (etxe-izenek) berezitasun batzuk dituztela (toponimoak ere badira) eta gizartean elementu garrantzitsuak direla. Hartara, horri guztiari arreta berezia jarri behar zaio. Etxe-izenak ondare ekonomikoa direnez, beste edozein toki-izen baino dokumentatuago

¹ Metodologia horren oinarriak honako bi dokumentu hauetan bilduta daude:

1. Gorrotxategi, M. (2007). «Metodología en trabajos de toponimia local, la experiencia de Euskal Herria», in *III Seminari en Toponimia i Normalització Lingüística*. Palma: Universitat de les Illes Balears, 39-68.
2. Gorrotxategi, M. (2008). «Toponimia ikerketak: prozedurak eta urratsak» in *Euskera* 53 (2008, 3), 663-691.

daude (oinordetza-eskriturak, salerosketa-eskriturak, zergak biltzeko zerrendak...). Eta, orobat, jendeak egunero erabiltzen dituen izenak dira, urteak joan urteak etorri, ohitura edo usadio hori galtzen ari bada ere.

5. GIZA-BALIABIDEAK: EGITURA ETA EGINKIZUNAK

Zuzendaritza teknikoa: Euskaltzaindia

Lantaldea: Etxauribarko herri bakoitzeko ordezkari bana

Lan teknikoa: Udalek kontratatutako bekaduna

Idazkaritza: Euskarabidea

PARTAIDEAK	EGINKIZUNAK
ZUZENDARI TEKNIKOA Paskual Rekalde	-Ikerlanaren prozesua zuzentzea -Lantaldeari trebakuntza ematea -Etengabeko aholkularitza teknikoa ematea -Baliabideak erabiltzen laguntzea -Jasotako datuak egoki jaso diren egiaztatzea -Aztertutako iturriak ontza ematea -Aurreikusitako urratsa eta epeak beteko direla bermatzea -
LANTADEA Txema Oderiz (koordinatzailea) ...	KOORDINATZAILEA: -Herrietako ordezkarien lana koordinatzea -Zuzendariarekin koordinatzea, lan teknikoari dagokionez -Idazkariarekin koordinatzea, bilerak antolatzeari dagokionez LANTADEA: -Informazioa biltzea -Landa-lana egitea -Zuzendariak ezarritako lanak egitea
LAN TEKNIKOA	-Lantaldeak bildutako informazioa antolatu eta behar bezala erregistratzea -Zuzendariak esandako lan xeheak burutzea, batez ere idatzizko informazioari dagokionez
IDAZKARIA	-Zuzendariarekin eta koordinatzailearekin adostuta, bilerak deitzea -Bileren aktak egitea

6. URRATSAK

Hasierako lanak:

- Egitasmoaren plangintza adostu
- Lantaldea osatzea eta antolatu
- Beka-deialdia egin
- Lantaldea formatu
- Egitasmoaren aurkezpena

Ikerketa lanak:

- A. Idatzizko iturriak
 1. Iturrien balorazioa eta hautaketa
 2. Minuta toponimikoa
 3. Argitaratutako iturrien hustuketa
 4. Artxibategien hustuketa
 5. Hausnarketa eta datuen txukunketa
- B. Ahozko bilketa
 1. Informatzaileen hautaketa
 2. Ahozko bilketa
 3. Ahoz bildutakoaren azterketa, eta hutsen bilketa eta zuzenketa
- C. Bildutako datuen azterketa, txukunketa eta arautze-proposamena
 1. Lehen idazkia tutoreari ematea
 2. Tutoreak lehen idazkia aztertzea eta behin-behineko arautzea egitea
- D. Jendaurreko aurkezpena
 1. Datuen garbiketa eta gogoeta
 2. Azken emaitzaren aurkezpena

Geroko lanak:

- Egindako lana Nafarroako toponimiaren datu-basean eta bisorean txertatu
- Lana gizarteratu
- Egindako lana ebaluatu, eta hurrengorako hobetzekoak aurreikusi

7. ATAZEN KRONOGRAMA

8. HASIERAKO LANAK 2022									
	2020-21	5	6	7	8	9	10	11	12
Lehen bilerak									
Lantaldea osatu									
Metodologia zehaztu									
Euskaltzaindiarekiko hitzarmena									
Plangintza taxutu									
Beka deialdia egin									
1. koordinazio-bilera			1						
Etxeak geolokalizatu									
Bekaduna aukeratua				1					
Formazioa				1					
IKERKETA-LANAK 2022									
2. koordinazio-bilera				1					
Idatzizko iturriak bildu									
3. koordinazio-bilera						1			
Ahozko iturriak jaso									
4. koordinazio-bilera (?)							5		
Datuak aztertu eta arautu									
Lana amaitu								2022-10-30	
Lana luzatu (?)									2022-12-31
5. koordinazio-bilera (?)									1
Behin-behineko aurkezpena									3-4
GEROKO LANAK 2023									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9
6. koordinazio-bilera									
Emitza datu-basean txertatu									
Datuak bisorean bistaratu									
Lana gizarteratu									